

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4877

169/2016 EBAZPENA, urriaren 4koa, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearena. Honen bidez, deialdia egiten da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Osasun Mentaleko Sareko Ospitalez Kanpoko Egituretako Psikiatriako Zerbitzu Sanitarioko buruaren lanpostua lehiaketa bidez betetzeko.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko Ospitalez Kanpoko Egituretako Psikiatria Zerbitzu Sanitarioko buruaren lanpostua hutsik dagoela-eta, Gerentzia Zuzendaritza honek erabaki du deialdi publikoa egitea lanpostu hori lehiaketa bidez betetzeko, honako hauetan ezarritakoaren arabera: Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen Hirugarren Arau Komuneko 28. artikulua; Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzeko uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, zeinak I. Eranskinean zehazten baitu lehiaketa bidez esleituko direla zerbitzu eta atal sanitarioetako buruen lanpostuak; abenduaren 16ko 55/2003 Legea, Osasun Zerbitzuetako estatutupeko langileen Marko Estatutuari buruzkoa, zeinak, zerbitzu eta atal sanitarioetako buruen postuak hautatzeko prozesuei dagokienez, urtarrilaren 8ko 1/1999 Errege Lege Dekretuaren 14. xedapen gehigarrian ezarritakora bideratzen baitu; EPOEko 79.1 artikulua, zeinetan ezartzen baita lehiaketan meritua eta gaitasunak eta, hala dagokionean, trebetasunak baloratuko dituztela organo elkargokide teknikoek eta Osakidetzako zuzendari nagusiaren 1/2016 Instrukzioari dagokionez ere, Gerentziako Zuzendaritzak lanpostu hori hornitzeko deialdi publikoa egiten du lehiaketa prozeduraren bidez. Hona hemen deialdiaren:

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek parte hartu ahalko dute deialdian:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako estatutupeko langilea, funtzionario edo langile finkoa izatea, Osasun Sistema Nazionaleko osasun-erakundeetako estatutupeko langile finkoa, eta, kasuan kasu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioa edo langile finkoa, eta eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko lanpostu batean jardunean egotea edo lanpostua gordetzea dakarren beste egoera administratibo batean.

b) Psikiatrian espezialista den fakultatiboaren titulua izatea.

c) Gutxienez 4 urteko lan-esperientzia Psikiatriako mediku espezialista gisa.

2.– Eskabideak aurkezteko epea:

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Arabako Osasun Mentaleko Sareko Personal Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak (Araba kalea, 43. 01006 Vitoria-Gasteiz), 15 egun balioduneko epean, deialdiaren ebazpena dagokien aldizkari ofizialean argitaratzen den azken egunaren hurrengotik hasita. Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkez daitezke eskabideak.

Interesdunek beren datu pertsonal guztiak zehaztu beharko dituzte eskabidean, eta curriculum vitae dokumentatuarekin batera bidali beharko dute Arabako Osasun Mentaleko Sareko Pertsonal Zuzendaritzara.

Dokumentazioan, honako hauek egon beharko dute:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Langilearen funtzionario- edo estatutupeko-izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, bestela, lan-kontratu finkoko langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua.
- d) Emandako zerbitzuen jatorrizko egiaztigiri eguneratua, kategoria zehazturik EHAA-n deialdia argitaratu den egunean.
- e) Bete behar den zerbitzuaren kudeaketaren inguruko Memoria-Proiektua.
- f) Meritu baloragarri guztien fotokopia konpultsatua.

Datu batzuk modu egokian balioztatuta baldin badaude CVaren aplikazio informatiko korporatiboan, orduan ez da beharrik izango horiek aurreko paragrafoan zehazten den bezala egiaztatzeko, baina eskabidean eman beharko da inguruabar horren berri.

3.– Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda.

Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, Kudeaketa Zuzendaritzak, ebazpen baten bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratuko du Osakidetza-ren webgunean, baztertzeko arrazoia zein den adierazita. Baztertutako izangaiek 10 laneguneko epea izango dute erreklamazioak egiteko, aipatutako ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Baztertzeko arrazoia zuzendu daitekeen huts bat baldin bada, behin-behineko zerrenda hori argitaratzen denean, antzemandako akatsak hamar laneguneko epean zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak eransteko eskatuko zaie interesdunei, ohartaraziz hala egiten ez badute prozesutik behin betiko baztertuko direla.

4.– Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

Erreklamazioak egiteko eta/edo eskaeretak akatsak zuzentzeko epea igarotakoan, Kudeaketa Zuzendaritzak, ebazpen baten bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko du, aurreko lerrokadan adierazitako toki beretan.

5.– Balorazio batzordea.

1) Kudeaketa Zuzendaritzak Balorazio Batzordeko kideak izendatuko ditu. Ebazpen hori Osakidetza-ren webgunean argitaratuko da, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da, erakunde publikoko zuzendari nagusiaren aurrean. Jarraibide honetako zortzigarren puntuari aipatutako kudeaketa-proiektuak defendatzeko saio publikoa egin baino gutxienez 10 egun lehenago argitaratu beharko da ebazpena.

2) Balorazio Batzordeko burua zuzendari medikoa izango da eta kide hauek izango ditu: Osakidetza Zuzendaritza Nagusiko zuzendariorde mediko edo zerbitzuburu korporatiboa, Langileen Kudeaketako zuzendaria (idazkari gisa jardungo du eta bozkatzeko ahalmena edukiko du) eta hiru kide –horietako bat IVAPek izendatuko du–. Hiru horiek izangaiei eskatutako titulazioa eta espezialitatea eduki beharko dituzte, estatutupeko langile finkoak, karrerako funtzionarioak edo

langile finkoak izan beharko dira, eta deialdian eskainitako lanpostuaren maila funtzional bereko edo goragoko lanpostu funtzional bat izan beharko dute.

Batzordeko kide titular bakoitzeko ordezkari bat izendatuko da, aurrekoak huts eginez gero haren lekua hartzeko, eta kide titularrentzat zehaztutako baldintzak bete beharko ditu. Aipatutako posturen bat ez baldin badago edo hutsik baldin badago, Osakidetzako beste edozein zerbitzu-erakundetako maila baliokideko langile bat izendatu ahalko da epaimahaiko kide.

3) Balorazio Batzordeko kide guztiak modu indibidualean izango dira batzorde horretako kide. Funtzionamenduari dagokionez, independenteak izango dira eta diskrezionalitate teknikoaren babespean jardungo dute, zuzenbidearen pean daudela alde batera utzi gabe.

Osaerak emakume eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa beteko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, egoerek aukera ematen badute. Beraz, sexu bakoitza ehuneko berrogeian ordezkatuta dagoenean ordezkari orekatua dagoela iritziko da.

4) Batzordeko kideek esku hartzeari uko egin beharko diote, Sektore Publikoa Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aipatutako egoeraren bat gertatzen bada, eta deialdia egin duen agintaritzari horren berri eman beharko diote. Kasu beretan, prozesuko parte-hartzaileek, edozein unetan, errekusazioa sustatu ahal izango dute, aipatutako lege-testuaren 24. artikuluan zehaztutakoari jarraituz. Era berean, Balorazio Batzordeak aipatutako 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18.era arte zehaztutako arauetara egokitu beharko du bere jarduna.

5) Balorazio Batzordeko kide guztiak hitza eta bozkatzeko ahalmena edukiko dute. Erabakiak gehiengoz hartuko dira eta akta batean jasoko dira.

6) Batzordeak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren legezkotasuna zainduko du, eta horren objektibotasuna bermatzeko ardura izango du. Halaber, deialdiko oinarrien aplikazioan sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, eta aurreikusi gabeko kasuetan, zein irizpide ezarri finkatuko du. Gainera, izangaiak ebaluatu baino lehen, ebaluatzeko irizpide zehatzak akta batean jaso beharko ditu, bertan jasotako oinarriei eta merezimenduen baremoari jarraituz.

6.– Hautatzeko prozedura.

Izangaien merezimenduen balorazioak honako fase hauek izango ditu:

1) Kudeaketako memoria-proiektua eta horren defentsa.

Balorazio Batzordeak deialdia egingo die izangaiei, prozesuan parte hartzen uzteko eskariarekin batera aurkeztu duten memoriari dagokion kudeaketa-proiektuaren defentsa publikoa egiteko. Deialdi hori gutxienez hamar egun lehenago egin beharko da, izangaien agerraldia noiz, non eta zer ordutan izango den adierazita, eta Osakidetzaren webgunean horren iragarki bat argitaratu beharko da.

Oro har, aurkeztutako kudeaketa-proiektuen defentsa publikoa egin baino lehen, Balorazio Batzordeko kideek Batzordeko kideei beraiei eragin diezaieketen abstenitzeko edo errekusatzeko arrazoi posibleak aztertuko dituzte eta organo deitzaileari jakinaraziko dizkiete.

Gero, deialdia egingo zaio izangai bakoitzari, proiektuaren aurkezpena eta defentsa egiteko, eta ondoren, elkarrizketa bat izateko. Elkarrizketa horretan, Balorazio Batzordeko kideek proiektuan jasotako alderdiei buruzko galderak egingo dizkiete izangaiari, gehiago argitzeko edo sakontzeko. Bai proiektuaren aurkezpena eta defentsa, bai elkarrizketa publikoak izango dira.

Izangaien proiektuen aurkezpen publikoa bukatutakoan, Balorazio Batzordeak puntuazioa emango dio izangai bakoitzari, deialdiko oinarrietan jasotakoaren arabera.

2) Merezimenduen balorazioa.

Balorazio Batzordeak izangai bakoitzaren merezimenduak baloratu eta puntuazioa emango du, deialdiko oinarrietan jasotakoaren arabera. Jarraibide honekin batera dagoen eranskinean, buruzagitza-lanpostuak betetzeko prozesu hauetan aplikatu beharreko merezimenduen baremoa jasotzen da.

3) Akta eta izendapen-proposamena.

Epaimahaiaren aktan, zehatz jaso beharko da epaimahaiko kideek hautagai bakoitzari baremoko atal bakoitzean emandako puntuazioa, bai eta epaimahaiak hautagaiei emandako puntuazio osoa ere, eta horrez gain, epaimahaiak puntuazioa emateko –bai hautagai bakoitzak aurkeztutako zerbitzuaren kudeaketari buruzko memoria-proiektuaren edukiaren puntuazioa, bai egindako aurkezpen publikoaren puntuazioa–, oinarritzat hartu dituen alderdiei buruzko azalpen labur bat jaso beharko da aktan, bai eta beste ataletako puntuazio xehatua ere.

Deialdian, berdinketa hausteko irizpideak zehaztu daitezke, betiere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoa kontuan hartuta.

Izendatua izateko, prozesu osoko puntuazio maximoaren erdia lortu behar da gutxienez, eta proiektua eta proiektuaren defentsa baloratzeko atalerako finkatutako puntuazio maximoaren erdia, nahitaez.

Era berean, Aktak Balorazio Batzordeak puntuazio handiena lortu duen pertsona hautagaiaren aldeko proposamena jasoko du.

7.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena.

1) Izangaiek aurkeztutako proiektuak eta izangaien curriculumeko merezimenduak ebaluatzeko fasea bukatutakoan, Balorazio Batzordeak izendapen-proposamen bat egingo dio dagokion zerbitzu-erakundeko Kudeaketa Zuzendaritzari, puntuazio handiena lortu duen izangaiaren aldekoa, izangaiek baremoko epigrafe bakoitzean lotutako puntuazioak banaka zehaztuta. Ez baldin badago deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituen izangairik edo eskatutako gutxienerako puntuazioa betetzen ez badute, Balorazio Batzordeak deialdia hutsik uztea proposatuko du. Proposamen hori Osakidetzaren webgunean argitaratuko da.

2) Kudeaketa Zuzendaritzak, egindako proposamena ikusita, proposatutako izangaia deialdian eskainitako lanpostua betetzeko izendatzeko edo deialdia hutsik uzteko ebazpen bat emango du. Azken kasu horretan, arrazoia adieraziko du eta hauetakoren bat izan beharko du: a) ez da izangairik aurkeztu, b) ez dago deialdiko oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituen izangairik, c) ez dago eskatutako gutxienerako puntuazioa lortu duen izangairik. Aurretik aipatutako a) atalaren kasuan, Kudeaketa Zuzendaritzak deialdia hutsik utzi ahal izango du, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, izapide gehiago egin behar izan gabe.

3) Izendapenaren ebazpena, interesdunei jakinarazteaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetzaren webgunean argitaratuko da. Horren aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango da, erakunde publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean.

8.– Esleipenaren ondorioak.

Osasun-arloko zerbitzuberu edo atalburu izendatzeak, kasuan kasu, aldi baterako harremana sortuko du, lau urteko epe luzagarrirako (8/1997 EASL, 28. artikulua).

9.– Argitalpena.

Deialdiaren ebazpena osoki argitaratu beharko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA), Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean.

10.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 4a.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentea,
EGUZKIÑE DE MIGUEL AGUIRRE.

ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

Merezimenduen baremoa (gehienez 66 puntu)

Merezimenduen balorazioak fase hauek izango ditu:

I.– Proiektua eta horren defentsa (gehienez 30 puntu).

Izangaiek dagokion zerbitzuaren (/atalaren) antolaketari eta funtzionamenduari buruzko memoria-proiektu bat aurkeztu beharko dute, kalifikazio-epaimahai baten aurrean aurkezpen publikoa egin beharko dute eta epaimahaiko kideek planteatutako galderei erantzun beharko diete.

Fase horretako puntuazioa bi atal hauetan banatuta dago:

a) Aurkeztutako zerbitzuaren kudeaketari buruzko memoria-proiektuaren edukiaren balorazioa. (gehienez 15 puntu)

Kudeaketari buruzko memoria-proiektuan, gutxienez, hurrengo atalak garatu beharko dira. Deialdian eskainitako lanpostu bakoitzaren ezaugarrien arabera, deialdiaren ebazpenean, agintaritzaren deitzaileak a.1), a.2) eta a.3) atal hauei dagokien gehieneko puntuazioa zehaztuko du:

a.1.– Antolaketarekin eta kudeaketarekin lotutako atala:

Zerbitzu/atalaren organigrama, bai buruzagitza-postuaren bai horri atxikitako gainerako postuen funtzioak adierazita.

Zerbitzuak/atalak erakunde bereko beste zerbitzu batzuekin duen harremana.

Buruzagitza/atala kudeatzeko plana, antolaketa-helburuak definituta, hobetu beharreko eremuak aztertuta eta hautemanda eta horiek lortzeko egokiak diren neurriak identifikatuta. Horrekin batera, esleitutako baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak modu efizientean erabiltzeko konpromisoa edo plana.

a.2.– Osasun-laguntzarekin lotutako atala:

Osasun-laguntzako zerbitzuen zorroaren deskribapena.

Osasun-laguntzaren helburuak eta adierazleak finkatzea, eta horrekin batera, horien etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema bat.

a.3.– Irakaskuntzaren eta ikerketaren atala:

Zerbitzu/atalako irakaskuntzaren plangintza zehaztea.

Memoria-Proiektu hau egiteko, hautagaiek Arabako Osasun Mentaleko Sarearen Kudeaketa Sanitarioko Unitatean eskuragarri izango dituzte Arabako Osasun Mentaleko Sarearen antolakuntzari eta arretari buruz behar dituzten datu guztiak.

b) Memoria-proiektua Balorazio Batzordearen aurrean publikoki aurkeztea (gehienez 15 puntu).

Proiektuaren aurkezpen publikoa baloratzeko orduan, memoria-proiektuaren defentsa modu argian eta zehatzean egitea baloratuko da, baita horren alderdi esanguratsuenak azaltzeko ahalmena ere. Dagokion aktan, kide bakoitzak hautagai bakoitzari emandako puntuazioaren justifikazioa jaso beharko da. Proiektuaren defentsaren argitasuna eta zehaztasuna baloratuko dira, baita proiektuaren alderdi esanguratsuenak azaltzeko ahalmena ere.

II.– Merezimenduen balorazioa (gehienez 30 puntu).

Puntuazioa honela banatuko da:

II.1.– Laneko esperientzia (gehienez 13 puntu).

- Dagokion espezialitatean fakultatibo gisa lan egiten emandako hilabete bakoitzeko: 0,0500 puntu.
- Dagokion espezialitatean atalburu gisa lan egiten emandako hilabete bakoitzeko: 0,0750 puntu.
- Dagokion espezialitatean zerbitzburu gisa lan egiten emandako hilabete bakoitzeko: 0,1000 puntu.
- Dagokion espezialitatean osasun-arloko administrazio publikoetako zuzendari gisa lan egiten emandako hilabete bakoitzeko: 0,1000 puntu.

Osakidetza eta Gizarte Segurantza osasunaren arloko zerbitzu-erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako edo edozein administrazio publikotako osasun-zerbitzuetan egindako lana lan-esperientzia gisa baloratuko da, baita Europar Batasuneko beste estatu etako sare publikoko osasun-zerbitzuetan egindako lana ere.

Gutzizko denbora zenbatzeko, lan egindako egun naturalak hartuko dira kontuan eta hilabetera heltzen ez diren gainerako egunak ez dira zenbatuko. Ildo horretan, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

II.2.– Prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren zabalkuntza (gehienez 17 puntu).

Ikastaroen ziurtagirietan kreditu kopurua bakarrik agertzen denean, puntuazioa 0,1 puntukoa izango da kreditu bakoitzeko.

II.2.1.– Kudeaketan prestakuntza izatea (gehienez 3 puntu).

Osasunaren arloko kudeaketarekin lotutako ikastaro bakoitzera joateagatik emango den puntuazioa, iraupenaren arabera:

- 20 orduetik 30era: 0,2000 puntu
- 31 orduetik 50era: 0,3000 puntu
- 51 orduetik 100era: 0,4000 puntu
- 101 orduetik 200era: 0,5000 puntu
- 200 orduetik gora: 1,2500 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, osasun-erakundeek, eta kasuan kasu, elkargo profesionaletan edo elkarte zientifikoek emandako ikastaroak baloratuko dira. Era berean, Osakidetza edo edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioaren arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere baloratuko dira, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketaren baten barrukoak ez badira.

II.2.2.– Espezialitateko etengabeko prestakuntza (gehienez 3 puntu).

Dagokion lanpostuko espezialitatearekin lotutako ikastaro bakoitzera joateagatik emango den puntuazioa, iraupenaren arabera:

- 20 orduetik 30era: 0,2000 puntu
- 31 orduetik 50era: 0,3000 puntu

- 51 ordutik 100era: 0,4000 puntu
- 101 ordutik 200era: 0,5000 puntu
- 200 ordutik gora: 1,2500 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, osasun-erakundeek, eta kasuan kasu, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek emandako ikastaroak baloratuko dira. Era berean, edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere baloratuko dira, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

II.2.3.– Graduondoko prestakuntza (gehienez 5 puntu):

- • Doktorea: 3 puntu.
- • Doktorea cum laude: 4 puntu.
- • Graduondoko masterra: 2 puntu.
- • Unibertsitateko aditu/espezialista: puntu 1.
- • Ikertzeko nahikotasuna edo ikasketa aurreratuetako diploma: puntu 1.
- • Doktorego-ikastaroa, doktorego-ikastaroetako bikain edo ohorezko matrikula bakoitzeko (gehienez 10 ikastaro): 0,1000 puntu.

Doktore, doktore cum laude, ikertzeko nahikotasun edo ikasketa aurreratuetako titulu bat lortzeko balio izan duten programetako doktorego-ikastaroak ez dira baloratuko.

II.2.4.– Jarduera zientifikoa (gehienez 3 puntu).

Dagokion espezialitatearekin zerikusia duten lan zientifikoak argitaratu, txostenak aurkeztu, komunikazioak egin, hitzaldiak eman edo mahai-inguruetan parte hartzeagatik:

- Eskualde bateko txosten-aurkezpen bakoitzeko: 0,2500 puntu.
- Txosten-aurkezpen nazional bakoitzeko: 1,000 puntu.
- Nazioarteko txosten-aurkezpen bakoitzeko: 1,500 puntu.
- Eskualdeko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,1500 puntu.
- Ahozko komunikazio/poster nazional bakoitzeko: 0,6000 puntu.
- Nazioarteko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1,0000 puntu.
- Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,2000 puntu.
- Mahai-inguru nazional bakoitzeko: 0,7500 puntu.
- Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 1,2500 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 1,0000 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5000 puntu.
- Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.

- Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): puntu 1.
- Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 1,0000 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5000 puntu.
- Tesina bakoitzeko: 1,5000 puntu.

II.2.5.– Irakaskuntza-jarduera (gehienez 3 puntu).

- Medikuntzako fakultateko katedraduna, dagokion espezialitatekoa (urteko): 1,0000 puntu.
- Medikuntzako fakultateko irakasle titularra, dagokion espezialitatekoa (urteko): 0,5000 puntu.
- Medikuntzako fakultateko irakasle elkartua, dagokion espezialitatekoa (urteko): 0,2500 puntu.
- Egoiliarren irakaskuntzarako onetsitako tutorea, dagokion espezialitatekoa (urteko): 0,5000 puntu.
- Etengabeko prestakuntzako programa ofizialetako irakaskuntza (orduko: 0,050 puntu).

III.– Euskara-ezagutza (gehienez 6 puntu).

Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta berau garatzeko arauetan jasotakoaren arabera baloratuko da.